

11/05/2020

HERRIA

Ixa ikerketa-taldeak adimen artifiziala aplikatu du Covid-19ren aurka

Estatu Batuetako Gobernuak bultzatutako Covid-19 gaixotasunaren inguruan antolatutako adimen artifizialeko txapelketan saria jaso du Ixa ikerketa-taldeak.

GAUR8


IMPRIMIR
ENVIAR

Saria lortu duen lantaldea

AEBetako Gobernuak antolatutako Covid-19 txapelketan antolatzaileek Covid-19, Sars-CoV-2 eta beste koronabirus batzuei buruzko 60.000 artikuluko zientifiko inguru jarri dituzte eskuragarri munduko ikerketa-komunitatearentzat. Sistemak biltzen dituen 60.000 artikuluko horien artean, seiren bat 2020 urtekoak dira. Hartara, koronabirusari buruzko ia 100 artikuluko argitaratzen dira egunero batez beste. Zientzialariek ez dute horiek denak irakurtzeko gaitasunik eta hortik dator txapelketako antolatzaileek adimen artifizialeko ikertzaileei egindako ekintzarako deia: hizkuntzaren prozesamenduan berriki egin diren aurrerapenak aplikatzeko eskatu die, Covid-19 gaixotasunaren aurka borrokan ari diren zientzialariei laguntzeko. Helburua, hauex: literatura zientifiko horretan lagungarri zaien informazioa ahalik eta errazean bilatzen laguntzea.

Txapelketaren lehen fasean ehunka parte-hartzaile izan dira eta hamar sari banatu dituzte. Horieta bat irabazi du HiTZ zentroko Ixa taldean garatutako sistemak. Sistemaren garapenean Euskal Herriko Unibertsitateko Arantxa Otegi eta Jon Ander Campos ikertzaileek eta Eneko Agirre eta Aitor Soroa irakasleek hartu dute parte.

ADVERTISING



Gehiegizko informazioa gutxitzea

Saritutako sistema hilabete eskasean garatu zen. «Taldearen barruan garatutako teknologiak erabiltzen ditu, hizkuntza naturalean egindako galderari erantzuteko eta erantzun posibleak dokumentu askotan bilatzeko sare neuronalak entrenatzeko aukera ematen dutenak. Gainera, txapelketa honetarako garatutako sistema gai da bere burua ebaluatzeko eta erantzunik ez emateko baldin eta ziur ez badago erantzuna zuzena dela». Aitor Soroa irakaslearen hitzetan, hori da sistemaren gakoetako bat, «horrela gehiegizko informazioa gutxitzen baita».

Ixa ikerketa-taldeak garatutako sistemak Covid-19 gaixotasuna eta Sars-CoV-2 birusaren inguruan adituek dituzten lehentasunezko galderen erantzunak bilatzen ditu aipatutako artikulu zientifiko horiek aztertuz. Sistema hau erabilgarria da, besteak beste, koronabirusaren historiaren, birusaren kutsatze eta diagnostikoaren, gizakien eta animalien arteko ukipenean hartu beharreko prebentzio-neurrien eta aurretik egindako azterketa epidemiologikoetako ikasbideen inguruko galderen erantzunak aurkitzeko.

«Sari hori —dio Jon Ander Campos doktoratu aurreko ikertzaileak— Ixa taldearen barruan hizkuntzaren prozesamendurako adimen artifizialaren erabilera egindako lanaren aitortza da». Eneko Agirre irakasleak gaineratu duenez, «etengabe sortzen den informazio-kantitate handiari aurre egiteko hizkuntzaren prozesamendurako sistemek duten garrantziaren froga da».

Es tiempo de
periodismo comprometido
y responsable

ÚNETE A NAIZ
desde 3€/mes

RIGOR • COMPROMISO • RESPONSABILIDAD